

JON MIRANDE ETA IRONIA

Jon Kortazar

1. IRONIA KONTZEPTUA

Octavio Pazek ximpleki ba da ere, xuhurki adierazten du zeintzuk diren XIX-XX. mendeetako poesia europearra, hots, poesia moderno osoa, gurutzatu duten bideek: analogia eta ironia. “En un mundo en que ha desaparecido la identidad —o sea: la eternidad cristiana—, la muerte se convierte en la gran excepción que absorbe a todas las otras y anula las reglas y las leyes. El recurso contra la excepción universal es doble: la ironía —la estética de lo grotesco, lo bizarro, lo único— y la analogía —la estética de las correspondencias”. (1) Eta zita labur honetan ba dago jadanik. Miranderen poesia argitzeko datu zenbait.

Halaz ere, argi ditzagun lehenik esaldi horretako kontzeptuak, Octavio Pazen hipotesia luzeago agertzen dugun artean.

Europako poesia modernoa denborarekin borrokatzen ari den gizonagandik sortzen da. Gizon europeok denbora linealean, hobe, progresuan sinesten du: geroago eta hobeago delakotan bizi da. Ez dugu orain hemen ideiarene zuhertasun edo errakuntza aztertuko. Interesatzen zaiguna zera da: mugatasunean ere sinisten duela konstatatzea, edo denboraren linealtasunean, eta erlatibismoan. “Ni ez naiz izango naizena baino”, diosku bigarren gizon honek, “eta badakit heriotzarekin neure denbora bukatua dela”. Eta orduan itauna sortzen da: zer dago heriotzaren atostean? Erantzuna doblea da Jaungorik dagoen ala ez dagoen.

Baina goragoko itaunak Erromantizismoan sortzen dira, eta hor, poeta ugarik zera adierazten dute: Jaungoikoa hil egin dela (Mirandek zerbait gehiago adieraziko du: berpizten ba da, berak hilgo duela).

Itzul gaitezen Pazengana: “La muerte de Dios abre las puertas a la contingencia y a la sinrazón. La respuesta es doble: la ironía, el humor, la

(1) Paz, O.: Los hijos del limo. *Seix Barral*, 1981, 3, arg. 1981, 111 or.

paradoja intelectual, también la angustia, la paradoja poética, la imagen” (2)

Beraz, Jaungoikorik ez ba dago, heriotzak eta bizitzak ez dute zentzurik eta, heriotz-min eta barreti, agertuko du poeta erromantikoak bere barnekotasuna: “una de las corrientes más poderosas y persistentes de la literatura moderna: el gusto por el sacrilegio y la blasfemia, el amor por lo extraño y lo grotesco, la alianza entre lo cotidiano y lo sobrenatural. En una palabra, la ironía, la gran invención romántica” (3).

Hauxe dugu ba, ironiaren papera. Maila filosofikoan planteatua dago haren funtzioa: gizonaren mugatasunaren, heriotzaren aurkako, salaketa mingarria.

Analogiaren kontzeptua ez da erraza zehazten. Baina kontzeptuaren iturburua poesiaren autonomian datza. Gure gaurko poesiarentzat poemak autonomia du: “El poema aspira a ser una entidad que se baste a sí misma..., cuya constitución sea un tejido de tensiones, de fuerzas absolutas” (4) Barne lege poetikoz osotutako errealtatea, hain zuzen; poemaren osotasuna barne legeok osotzen dute: erritmoa, puntua, e. a. Poeta erromantikoek poeziak sortutako errealtate honen eta benetako munduaren artean lotura zegoela uste zuten. Mikrokosmoan poesia munduaren, kosmos osoaren makrokosmoaren metafora zela sinesten dute. Poesia eta munduaren artean korrespondentziak direla: haren musikak, munduarena errepikatzen dutela. Poesia munduarena ispilu dela adierazi nahi dute. Poema eta munduaren arteko lotura, hori dugu izan ere analogia.

“La analogía concibe el mundo como ritmo: es un texto o tejido de signos, la rotación de esos signos está regida por el ritmo. El mundo es un poema; a su vez el poema es un mundo de ritmos y símbolos. Correspondencia y analogía no son sino nombres del ritmo universal” (5). Horra hor Pazen laburpena arazo honetaz.

Miranderengana bihurtuz, zera esan dezakegu orain: Badakigu zein den bere ironiaren iturri: heriotza eta Jaungoikoaren aurkako protesta, hori baino gehiago, ez-komunikazioa, hitz ixila, hitzaren aurpegi iluna. Berari tinko heldu zaio Mirande, barnekotasunaren, munduaren ezereza, zentzu falta adierazteko asmoz.

Aurkitu dugu ironiaren jaioterria. Pazek dioan guztia eta guk Miranderi aplikatu dioguna, ezer aldatu gabe erants diezaiokegu Baudelaire-ri. Eta jakina da idazle paristar bien artean dagoen lotura estua.

Ironia erromantikoa ez da soilik gertatzen, beste idea eta eginkizun kulturekin lotua agertzen da. Honelako batek beste guztiei aurea hartzen die: Greziagatiko lilurak, hain zuzen. Keats, Hölderlin eta Goethe ikuspegiatarako Greziak edertasunekin batera, askatasuna suposatzen du. Esti-loarekiko askatasuna: “Libertad de reglas perversas y artificiales y tiráni-

(2) Paz, O.: op. cit., 74 or.

(3) Paz, O.: op. cit., 67 or.

(4) Friederich, H.: Estructura de la lírica moderna, Seix Barral, Barcelona, 1974, 22 or.

(5) Paz, O.: op. cit., 97 or.

cas. Los poetas suspiraron de alivio cuando se dieron cuenta de que la existencia de los trágicos griegos y de que el tratado un poco mutilado de Aristóteles no quería decir que estuvieran obligados a escribir según moldes preestablecidos” (6). Baina Grezia klasikoan gertatu ez arren, poeta erromantikoek moralara zabalduko dute askatasun legea. Honela da haien interpretazioz, moralaren ikuspegia: “aplicada a la moral, la nueva interpretación de la cultura significó principalmente libertad sexual” (7).

Grezia klasikoaganako lilura (erromantizismo ez bait da klasizismoaren etsai, neoklasizismoarena izan arren ere), nagusitzen joan zen XIX. mendean hasieran zehar; Europa osoan gertatzen den iraultza poetiko nabarmenena gertatu arte: “Fue la primera y la más osada de las revoluciones poéticas, la primera que explora los dominios subterráneos del sueño, el pensamiento inconsciente y el erotismo; la primera, asimismo, que hace de la nostalgia del pasado una estética y una política” (8) idazten du Octavio Pazek, erromantizismoaren garrantzia azpimarkatu nahiez. Hor ditugu jadanik Miranderen poesiaren aztarnak. Alde batetik, ironia erotismoarekin lotzen baita; eta bestetik, iraganakoaren.

Hemen zuzenketa bat beharrezko dirudi. Egia ba da Bowraren zita hau: “Ciertos períodos del pasado descuellan con singular resplandor por la amplitud y riqueza de sus realizaciones... Apenas podemos evitar dejarnos fascinar por ellas” (9), ikusi beharrezkoa dirudi Miranderen aro lilurgarria zein den finkatzea.

Erromantikoentzat Grezia zen iraganaren argi dizdiraz agertzen zaizkien kultura harrigarria. Nik Greziarena ukatuko ez banu ere, badirudi Miranderen barna iragan zeltak indar handiagoa izan duela. Hala eta guztiz ere, liluraren helburuak berdinak ez ba da dira ere, berdina da iraganean lilura aurkitzeko zaletasuna.

Europako poesiaren historiak aurrera egin zuen, ordea. Eta Erromantizismoak sortutako ironiak eta Greziatik ikasitako hurbiltasunak geroago eta estuago arituko dira idazleen pentsamolde mundua irabazten. Eta horrela, Industrializazio garaia heltzen denean, lirikan Parnasianismoa sortuko da. Mogimentu honen ardatza Highet-ek adieratzen dituen bideotatik doa: “Los escritores admiraban esta cultura (Grezia) por dos razones principales: porque era hermosa y porque no era cristiana” (10). Guri orain bigarren ezaugarriak arduratzen gaitu. Gero eta bortitzago agertuko baita, Baudelairek oraindik (eta Miranderengan izan zuen influentziagatik zitazten dugu hemen) kristautasun-ezkristautasunaren arteko kinka larrian mogitzen baita: “Es imposible imaginar a Baudelaire sin el cristianismo. Pero el poeta ya no es cristiano” (11); XIX. mendea aurrera doan artean

(6) Highet, H.: La tradición clásica. Vol. II, F.C.E. México, 1978 110 or.

(7) Highet, H.: op. cit. 110 or.

(8) Paz, O.: op. cit., 67 or.

(9) Bowra, C. M.: La Atenas de Pericles. Alianza. Madrid, 1983, 4. errg., 11 or.

(10) Highet, H.: op. cit. 220 or.

(11) Friederich, H.: op. cit. 61 or.

zehaztu eta gogortu egingo da zentzu antikristau hori: “Muchos de los más ardientes amantes de los clásicos durante el siglo XIX aborrecían y despreciaban el cristianismo. En esto les habían llevado la delantera los poetas revolucionarios: Shelley, Hölderlin y otros; pero sus sucesores fueron más decididos y más rencorosos. Amaban el paganismo por todo cuanto en él no era cristiano. Aborrecían el cristianismo porque no era grecorromano, o porque era una perversión de los ideales grecorromanos” (12).

Gorago egindako zuzenketa kontutan izan ezker, Mirandek batez ere erromatarra ez zen paganismo zelta maite du; oso-osoa dagokio hipotesi hau bere poesiari. Hiru ziren XIX. mendeko idazle antikristauak (Renan, Louys, Nietzsche, Carducci) pentsamaoldetzat hartutako zutabe ideologikoak:

“1) El cristianismo no es parte de la tradición europea; es algo oriental, y por lo tanto bárbaro y repulsivo.

2) El cristianismo significa represión; el paganismo significa libertad.

3) El cristianismo es tímido y débil; el paganismo es fuerte e intenso” (13).

Azal ditzagun hirurok apur-apurka.

a) Lehendabizikoa antijudaismo ezagun batetik sortutako ideia dugu. Renan eta Anotole France lirateke ideiarene jarraitzailerik ezagunenak. Idazleone lanetan kristau juduak gizon zeken eta moralki txikerrak bezala agertzen dira, hiri paganoen edertasun eta aberastasunaren aurrean. Haien irabazi zutenez historian, idazleone ustetan, juduen txirotasunak, iluntasun eta zikintasunak, aberastasun eta edertasunaren ganetik iraganatuz irabazi zuten.

b) Ideia hau oso zabaldua da Europa osoan. Carduccirentzat, *Satanasari* idazten duenean, askatasuna progresoa da. Baina aurrean beti izan du Eleiza Katolikoa progresoa lotzeko. Ondorioa, bada, argia da. Kristautasuna eta Eleiza deuseztatu.

Hala ere, ideiarene bigarren adarrak sexualitatearene mundua zeharkatzen zuen. Idazle parnasianoentzat Grezia askatasun sexualarene ikurra zen; errealtatean ez zen Grezian hori gertatzen, hiri orientaletan baino hauek ausartagoak bait ziren, eta barrenean helenismoa eta orientalismoa (bata, askatasun sexual gabe; bestea, ez) nahastatzen zuten idazle parnasianoek. Baina berdin zitzaie, garrantzia beste honetan zegoen: Kristautasunak sexoarekiko duen estutasuna etetzeko posibilitatea eskeintzen zuela Greziak. Antikristautasunak sexualitatea gai literario bezala tratatzea suposatzen zuen. Eta honetan, Pierre Louys izango da idazlerik famatuena (Gogora *Bilitis*).

c) Hirugarren ideiarene defendatzaile bat zuzenena Nietzsche dugu. Minoria indartsuen defendatzaile porrokatuak, oligarkiaren balore morala defenditu beharra zegoela uste zuen, kristautasuna uxatuz, honek jente

(12) *Highet, H.*: op. cit. 241 or.

(13) *Highet, H.*: op. cit. 242-258, or.

xehe eta urruntaren moralala, eta plebearen alde jartzen zelakoz. Zuhurki idatzi du gai honetaz Joxe Azurmendik (14). Baina nola gai honek gure azterketaren kapitulu osoa beteko duenez, buka dezagun.

Sintesi honi oso egoki eta tentagarria deritzogu berton, Antolin Eguzkitzak definitutako ideologiaren erroak azaltzeko. A. Eguzkitzaren ustetan, hauek ditugu Mirandaren ideologiaren zutabeak:

- a) Hain deitogarri egin den faxismoa.
- b) Kristautasunari gorrotoa (eta parentesi artean jar dezagun “Ohiko Jaunkoari” poema sonatua kontextu honetan sartu eta sortu dela).
- c) Paganismoa. Nahiz eta hau Andolin Eguzkitzaren lanean bigarre-narekin batera joan (15).

Kontestu europear honek laguntzen du, nik uste, Miranderen agresibitate eta desplante hainbat ulertzeko, faxismoaren arazoa ere tartean dela. Mirande (berak esaten ba zuen honela izango zen) faxista zen. Baina Nietzscheren erara. Horrela, nahiko ados agertuko ginake Azurmendirekin: “Miranderen faxismo eta nazismo arazoa kultur filosofia batetan galtzen da” (16). Guk, ordea, hauxe bakarrik erantsiko genioke: ez dela galtzen, aurkitzen baino, lehendabiziz; eta kultur-filosofiarekin batera politika baten arazoa ba dela, bigarrenez.

Miranderen ironia eta alde berean hainbat ezaugarri ideologikoen sus-traiak Europako Erromantizismoak sortutako “tradizioan” aurkitzen dire-la uste ba dugu ere, ezin dugu ahaztu indarraren teoria kontestu historiko batean sortzen dela: “Gerra osteko euskal ideologia defentsibotik geroago-ko agresibora, Mirande dugu zubi... Gerra ondoan, Jose Antonio Agirrerren “zintzotasun ideologia” zegozkion apika Euskal Herriari, gerra galdu arren bere buruaren uste ona behintzat ez galtzeko” (17). Eta nik ez nuke ahaztu nahi zintzotasun horrek bere poeta izan zuela, Lauaxeta. Eta honen aztar-nak, nik uste, nabariak dira Miranderen lehenengo poesietan.

Ideologia honen aurka altza zen neurrian, altza zen Mirande. Eta gure pentsamentua jarraituz, paralelismo berdina egin dezakegu idazle bion poe-sien artean.

Lauaxetaren poesia analogikoa da. *Arrats-Beran* liburuaren sarreran dioskunez, bere poesiak “beste munduko txoriak” erreflejatu nahi lituzke, poesiaren musika munduko soinuaren ispilu bihurtu. Mirandek, ironia aukeratuko du, “ideologiaren zintzoaren” idealismoaren aurka joateko.

Baina nik ez nuke nahi ahaztu, Mirande Aresti baino gehiago gorai-patu, irakurri, aztertzen ba dugu, arrazoiak ez direla afektiboak edo “kalita-tezkoak” soilik, ideologikoak ere badirela (18).

(14) Azurmendi, José: Mirande eta Kristautasuna. C.A.P. San Sebastián, 1978.

(15) Eguzkitza, A: “Jon Mirande...” in Saioak, 1, 234-241 or.

(16) Azurmendi, 63 or.

(17) Azurmendi, 37 or.

(18) Ez nuke nahi, Lizardi-Lauaxetarekin egin zen bezala, Mirande-Arestirekin biga-rreren Euskal-Olerkari Txapelketa sortu. Bai ordea argi utzi, poetok gaurko opzio politiko konkretuen sinbolo ba direla neurri baten.

Esandako guztia, laburtuz, bada, Miranderen ironiaren iturburua Europako XIX, mendeko Literaturan aurkitzen da. Ironiak ba du funtzio filosofikoa: denboraren linealtasunean aurkako (19) zerbait dugu, heriorat-zari egindako protesta mingarri eta urratua.

2. MIRANDEREN IRONIAK

Bigarren alde honetan, filosofiatik poesiari itzuliko gara, ironia zelan betetzen duen Mirandek ikustea helburutzat harturik. Arlo honetan gure hipotesia doblea da: 1) Ebolutiboa dela ironia adierazi; eta 2) hiru ironia mota desberdin direla argitu.

Kronologiaren arazoa hasieran tratatzekoa dugu. Andolin Eguzkitza-ren edizioak ordenazio kronologikoa ba du ere, bederatzi poema geratzen dira data gabe. Eta hortxe dago koska. Ez bait dago jakiterik noizkoak diren, baina suposa bide dugu bere gaien gogortasun, bere tankeragatik azken aldikoak ditugula. Hau da, ironia geroago eta absolutizatuagoa bihurtzen ari da, geroago eta elementu absolutoei atxekitzen dielarik. Beste hitz batzuekin esanda, ironia geroago eta bortitzago agertzen zaigu.

Liburu eta eboluzio poetikoaren hasieran ironia topikoz osoturik agertzen da eta maitasun erlazio erromantiko ingenuoak salatuz. Bigarrenez, ironia “literario” aldea utzirik, kritika sozialera iragan du, hirugarrenez, ironiak, edo ukazioak, Filosofia eta Jaingoagana heltzen da. Horrela ba, guk hiru ironia mota bananduko genituzke eta era berean eboluzioa planteatu.

2.a. Ironia intelektuala

Orhoituz liburuaren lehenengoko bederatzi poematan ironiak ba du ezagunaren ohiartzuna. Ohartu, beste alde, lehendabiziko atal honek, poesiari influentziatuena ageri duela. Balada zaharrak eta Lauaxeta, presente

(19) Denboraren kontzeptzio hauek asko argitzen ditu “Ohizko Jainkoa” poemak. Octavio Pazek azaltzen duenez, era bitako denbora kontzeptzioak daude: ziklikoa eta lineala. Eta era berean Jaungoiko klase bi: hil eta berriro berpizten diren jainko pagonoak, eta betirako esistitzen den kristaia: “Para la razón Dios existe o no existe. En el primer caso, no puede morir, y en el segundo, ¿cómo puede morir alguien que nunca ha existido? Este razonamiento es válido solamente desde la perspectiva del monoteísmo y del tiempo sucesivo e irreversible de Occidente. La antigüedad sabía que los dioses son mortales pero que, manifestaciones del tiempo cíclico, resucitan y regresan... En cambio, Cristo vino a la tierra una sola vez” (73-74 or.). Mirandek poema horretan Josubar Joseph-i ukazio bi egiten dizkio:

1) Jainko pagano bezala tratatu: hil eta berriro etorriko direlakoan antzera tratatu, alegia, nahiz eta Kristo beste bigarren kontzeptzioko izan; eta

2) bigarrenez, agertzen ba da, berak kruzifikatu. Argi dago beraz, poemaren harri-garritasuna lortzeko erabilitako falazia Kristo ez bait da behin eta berriro itzultzen den Jainkoa. Beraz, poema estonagarria da, baina kontzeptualki faltsua.

direla esango nuke bai liburuari hasiera ematen dion “Ilhun nabarrez” poeman edo “Igelak” deiturikoan, hala nola “Akelarre”-n edo “Jauregi ho-ztean”. Erabilitako pertsonaien senari begiratuz (zaldunak, printzesak, jau-regiak, Nafarroa), Erdi Aroko giro lilugarria espresatzera abiatzen dira. Beste alde, musikalitatean eta balio sensibleetan oinarriturik, modernis-moaren jokerak tartekatu dira.

Baina giro lilugarri honetan kokatutako historiak mingotsak dira. Infi-deltasun eta heriotzean oinarriturikoak. Ezaugarriok honela ba dira ere, ironiaren barna abiatzearen, honela muga dezakegu beran:

a) Ideien ala hitz jokoetatik lortutako ironia.

Adibidea: “Igelak”, “min” hitzaren zentzu doblea erabili da, batez ere azken bertsoan:

Gau minean
aintziko igelek dute, ai! ei!
ilhargi min. (O, 15)

Baina poema berean, indar gehiago dauka absurdoaren barna man-tenetzen den koerentzia. Edo fikzioaren barnean egindako jokoa. Azal deza-gun: ez da posible, poetiko bada ere, igelek ilargi-irudia jaten dutenik, gut-tiago, honek sabeleko minik eman dezakeenik.

b) Esperantza-errealitate jokotik sortutako ironia.

Maite kantutan erabilia batez ere. Pentsakizun eskema honalaxe taiu-tutakoa: norbaitek (mutilak) maitasuna lortzeko esperantza dauka (Gogo-ratu, “Ilhun nabarrez” poemako “hain hurrundik amore zun” etorritako zalduna) besteak (neskatxak) ez dio kasurik egiten.

Heinerean eta era berean Lauaxetaren aztarna askotxo duen egitura dugu. Maitasun hitzaren ezereza, fideltasunean sinestearen ingenuitatea agertu nahi du Mirandek, Trianguloaren arazoa planteaturik uzten dituen poemak sortuz. Eta honelakoxeak Heinerekin hasi ziren, eta maitasun erro-mantikoz trufa egiten zuen poesia mota ironikoa hedatu zen. Zentzu honetan, bakarrik dei diezaiokegu Miranderen atal honeri, ironia tradizionala edo literarioa.

Beste matizazioen bat ere behar luke guzti honek. Tratamentua inte-lektual ala ezaguna izan arren ere, ez du horrek guttiten bortizkeria. Haste-ko, maitasunari buruzko ironia egiteak ezezaren bideetan jarri du idazlea. Maitasuna ukatzea, ironiaren bitartez urruntzea ez da txantxetakoa. Hala ere, erlatiboa da maitasunaren ukazioa, hobe litzateke fideltasunaren uka-zioa dela esatea, Mirandek sinisten du eta maitasun mota batetan: “Piga-lle”, “Amsterdam” poemek adierazten dutenez, Jarraipenean, ostean ez. Maitasunaren betikotasun eta fideltasunean, gutti.

c) Ironia hau kontrastean ere oinarritzen da:

“Orhoituz” poema gau/eguerdi kontzeptuen artean ardaztu da, “Ake-larren” gau/goiza artean. Azkenengo datu hauek ironia honen jokera kon-

trajargarria aurkeztuz at, haren pentsakizun jokoan, logikaren zaletasuna adieiazten dute.

Laburtuz, bada, maitasun fidelaren inguruan mogituriko ironia honela muga dezakegu: sustrai intelektuala izaki, ideien kontraste eta paradojetan oinarritua dugu. Izan ere, Mirande ez da sail honetan lehenengo pertsonan ari, lehenengo pertsona gramatikalean, noski, bere aurpegia eta sentibera hementxe agertu arren. Hartutako jokera, “besteei” gertatua balitz bezala kontatuz, urruntzeko aukera ematen diote. Edo Ironiaz maisuki idatzi duen Jankelevitchek dioanez: (20) “La ironía, que ya no teme las sorpresas, *juega con el peligro*”.

2.b. Ironia soziala

Lehenengo ironia joko intelektual bezala interpretatzen ba dugu, bigarrena bere errealitatearekin —historiko, politiko— lotzen da. Honela ironiak ez du bakarrik zabaltasunez irabatzen, mamiz ere bai; konpromezua indartu egiten da; axolarik ez zuen joko intelektualetik, axola eta ondorioak izango duen ironia sozialera. “Ondorioak” diogu, argi baita ez dakit zein mendetako prinzesa nafarrek ez zuela bere irudiarekin egindako kritikagatik protestatuko Miranderen aurrean, baina beste zerbait gertatuko dala bere ikusmiran bizirik diren eta minduko diren alderdi politiko eta pertsonak jarri ezkerero.

Bigarren atal honetako poemarik ezagunena “Euskaldun zintzoen balada” (0,33) dateke, zihur asko. Eta, nahikotzat joko litzateke Miranderen ironia azterzeko. Nik uste, osterá, bi adar desberdin aipatu beharko litzatekez (21).

a) “Euskaldun zintzoen balada” EAJen aurka idatzitakoa, eta neurri batetan alderdia, eta organizazioa ukatzen duena, eta

b) “Paris-Beuret” lanaren, eta bereziki, lan aspergarriaren aurka joandako poema.

Deitogarriagoa izan arren lehendabizikoa (suposatzen zituen hausdurakatik baino ez bada), Miranderen filosofiaren barna garrantzizkotzat dugu bigarrena.

(20) Jankelevitch, W.: *La ironía*. Taurus, Madrid 1982, 11 or.

(21) *Bestalde bigarren atal honen inguruan sexoari buruzko hainbat poema kokatzen dira. Zelan hoietan ez den tonu ironikorik erabilten, ezin ditugu gure azterketan sartu. Baina bestalde errez ulertuko du irakurleak zera: ironia apurketa ba da (eta bereziki maitasun arruntaren apurketa, iraupenean sinesten duen maitasunaren hausdura), maitasun puntualak ukazioaren aurrean jarritako irtenbidea, bizitzeko arrazoiak dela. Beraz*

*ironia = apurketa
maitasun puntuala = konponketa*

Baina honetaz, geroxeago luzeago jardungo.

Hortxe XIX. mendean oso erabilia izan zen sentimentu bat erabiltzen du Mirandek. Poesia errealtate *arrunt batetatik ihes egiteko* bidea da.

Hemen ere Arestiganako desberdintasuna nabaria da. Ihesbidearen jokerea arrunta izan zen: “El siglo XIX fue la época dorada para los acumuladores de dinero, pero para los pensadores, los poetas y los artistas, para los hombres que amaban la naturaleza y la humanidad, fue el infierno..., también en lo material fue horrible el siglo XIX... Muchos poetas del siglo XIX sentían que era imposible escribir algo hermoso sobre la vida que veían en torno suyo... Miraban a otras tierras y a otras épocas” (22).

Horregatik lanaren ukazioak “Paris Beuret” ekin lotua aurkitzen du zentzua osoa. “Paris Beuret” eta “Euskaldun zintzoen balada” ukazio urkoak dira. XX. mendea ukatzen da maila bitan ukatu ere, behetik, “Paris Beuret” —en errealtismotik ihes eginik, eta goitik “Euskaldun” —en idealismotik, horrela idealismo *hori ez den ideala agertzeko bere poemotan*: paganismoa, iraganako garaien idealismoa. Hainbaten azpimarkatu dugun bezala, Miranderen paganismoak ez du erro heladetarrik, Euskal Herriko sorkeran aurkitzen saiatzen da, hain maite zituen kultura zelta, aurre-erromatarren zaletasuna jarraituz.

Bigarren honetan ironia ez da ja joko bat, salaketa bihurtu da: “La ironía obliga al injusto a ser de verdad lo que es; le obliga con franqueza y brutalidad, para que acabe reventando; le obliga a confesarse, porque sabe que al hacerlo, se perderá” (23).

2.c. Ironia filosofikoa

(—*Baal arrotza ukhatzen dugu*—)

Azken momentuan, (liburuan azkenekoz argitaratzen diren olerkiak azken aldikoak ba dira bederen) Miranderen ironia Absolutuarekin konturatzan da. XVIII. poematik aurrera ironiak sakontasunez irabazten du, eta gizonaren kontzientziaren muinean kokatzen du bere begirada. Bai “Zakhur hil bati” poematik hasi, “Nil igitur mors est” iraganik eta “Ohiko Jainkoari” raino helduaz, Mirandek itaunik zuzenak egiten ditu: zer da denbora? Zer gizon-txakur hori, zer Jainkoa? Eta emandako erantzunek ukazio mugetaraino eramaten dute idazlea.

Ez da ja ironia Jankelevitch-ek zioan joko, ondorio biogratikorik atazterik ez ba dugu nahi ere, norberaren buruari buruzko itaun bihurtzen dira goikoak; “Ironiak norbere bildur faltsuarekin jolastean datza” zioskun filosofo frantzesak. Baina, guk uste, Mirande puntu hontara heldu denean, alde batera utzi ditu jokoak: bere burua dago joko-mahian. Eta gogor eta gotor balientreki egiten du apustua, mugaraino eramanez ironiaren ukazioa. Absolutoaren (Jainko ala Heriotza) ukazioaz poesia giza-askatasun eta giza-hitzaren mezulari bihurtzen du Mirandek. Hitza, poesia geratzen

(22) *Highet, H.*: op cit, 218 or.

(23) *Jankelevitch, W.*: op cit. 87 or.

zaio bakarrik. Gizon olerkari, bihurtu da. Poesia deitzen den erlijio berri bateko apaiz. Eta bide honetatik abiatuz, kuriosa da Miranderen formula erlijiosoan erabilera: “Ekleasian” (O, 58), “Miserera”, “Eli, Eli” (O, 93); gizonaren bakartasunaren aipamena hutsak baitira.

Puntu honetan, Mirandek analogia ukatzen du. Kosmos edo Absolutoren espresabide zen poesiarik ez dago: Ortziren ttuntunaren ohiartzunak ixildu dira, ironia geratu da bakarrik: “El universo, dice la ironía, no es una escritura, si lo fuese, sus signos serían incomprensibles para el hombre porque en ella no figura la palabra muerte, y el hombre es mortal” (24).

Jon Mirandek bere Eleizan onartzen du txakur hila —beste askotan faxista bezala artu bazen ere, eta xeheen etsai—; heriotzak —hil ezineko ezizakiak— dena jotzen du, ordea (O, 64) eta bere aurrean poesia karraxi bihurtzen da (Harrizko Jainko bati); atzeman ezinekoaren ohia (Undina) edo birao (Ohiko Jainkoari).

Olerkien bidez absolutu guztiak ukatu nahi lituzke Mirandek.

3. IRTENBIDEAK

Miranderen ironia ukazioen progresioa dateke. Bere olerkietan agertzen den pentsakizunak XIX mendeetako ideologian (Erromantikoak, Bau-delaire, Nietzsche) ideologian aurkitzen ditu, bere sustraiak (zut-harriak). Bere pentsakizunaren espresabide bezala ironia onartu du, ironia hori progresiboa delarik: bere burua geroago eta indartsuago hartzen duen eboluzioa hain zuzen. Espresabideak ere geroago eta pertsonalagoak izanik, ironia intelektual batetik hasi eta absolutuara iraganako du. Sakontasunez irabazten duen neurrian, ere, irabazi egin du gure idazleak. Bere ironiak adar bi besarkatzen ditu: Pentsakizunaren arloa eta espresabidearena. Ironia hau ukazio bihurtzen da, hainbat ideiari ezetz esateko espresabide. Horrela, bere pentsakizuna ardatz baten inguruan osotu du: ukazio/baiztapen inguruan. Azkenean honelako eskema osotu artean:

Maitasun iraunkorra / Momentuko maitasuna
Politika, Lana, Organizazioa / Indibidualismoa
Kristautasuna / Paganismo euskalduna
Absolutua / Erlatibotasuna

Eskemako ezkerreko kontzeptuak ironiaren bitartez ukatuak geratzen dira Miranderen poesian. Besteak baieztatuak, Mirande gaurko munduaren giza-talde handi baten espresabide bihurtzen delarik.

Mundaka, 1983ko Abendua

(24) Paz, O.: op. cit. 111 or.